Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

# baikara

Donostia • Gipuzkoa

Noviembre 2013ko azaroa



# Ugaro eta Mendaroko ikasleak Topic-en eskola kanpaina zabaldu dute



BAIKARA

Ikasle nahiz gurasoen neurri-neurriko eskaintza



DONOSTIA

Munduko ipuinak, munduko kulturak-
Cuentos del mundo, culturas del mundo

Donostia
San Sebastián
2013-2014

# Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen X. ekitaldia

# X edición Infantil y Juvenil de Arte y Derechos Humanos




**"Donostia koloretan"** Intxaurrondoko Haurtxokoa

# donostia

## 04-08



p.4 **Babel: munduko ipuinak, munduko kulturak – Cuentos del mundo, culturas del mundo**
p. 5 ‘200’ Bideoinstalazio interaktiboa
p. 6 Hip hip urri!, plan kulturalak familiartean
p. 7 Aprender con la música
p. 8 Breves-Laburrak

# gipuzkoa

## 09-16



p. 9 **Ikasle nahiz gurasoen neurri-neurriko eskaintza**
p. 10 Ikasle trukea, Kurtzebarri ikastetxeko eta holandako Merletcollege ikastetxeko ikasleen artean/ Completada la instalación del aula de psicomotricidad en Amaña de Eibar
p. 11 Ugaro y Mendaro ikastetxea abren la Campaña escolar del Topic
p. 12 El nuevo centro de Toki Alai para niños y niñas de dos años abrió sus puertas en Irun/ Cubrimiento del patio en San Andres de Arrasate
p. 13 Concurso de carteles del instituto Usandizaga-Peñaflorida/ Guztira, 47 ikasleren topaleku da Olaberriko eskola
p. 14 Eskola publikoa, LOMCEren eta murrizketaren kontra kalean

Foto de portada: Iñigo Royo

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

**ARGITARATZAILEA:** BAIKARA FEDERAZIOA
Baso-Txiki Kalea, 36, atzealdea. 20015 Donostia. Tfno 943327208. Fax. 943274977. e-mail: baikara@baikara.org / rosa@baikara.org
**Koordinatzailea:** Rosa Izquierdo.
**Erredakzioa:** San Andrés (Arrasate) Usandizaga-Peñaflorida (Donostia); Olaberriko eskola; Kurtzebarri (Aretxabaleta).
**Argazkiak:** AM Press; Topic Tolosa; Erniobea (Billabona); Ipintza (Bergara); Luis Eceiza (Eskoriatza); Urgain (Oñati); Usandizaga-Peñaflorida (Donostia); Toki Alai (Irun); San Andrés (Arrasate); Olaberriko eskola; Kurtzebarri (Aretxabaleta); Amaña (Eibar).
**Diseinua:** AM Información. **Inprimatzailea:** SVP. **Lege gordailua:** ISSN 1697-9109

# BABEL: MUNDUKO IPUINAK, MUNDUKO KULTURAK - CUENTOS DEL MUNDO, CULTURAS DEL MUNDO




**La exposición se compone de varios paneles y en cada uno de ellos podemos encontrar un cuento, un país, una cultura**

Los departamentos de Diversidad Cultural y Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia/ San Sebastián, en su deseo de seguir impulsando la educación en valores y el respeto a la diversidad, además de la promoción de los derechos humanos, han organizando visitas guiadas a una nueva exposición.

En esta ocasión, se trata de la exposición itinerante "Babel: cuentos del mundo, culturas del mundo", realizada por Dar-Dar produkzioak que pretende acercar al público en general, pero muy especialmente a niñas y niños de 5 a 10 años, otras culturas del mundo. El objetivo general de dicha exposición es fomentar la convivencia entre personas de origen y culturas diversas, así como el reconocimiento mutuo. En esta exposición están representadas algunas de las comunidades extranjeras más numerosas en el País Vasco: Rusia, Senegal, Ecuador, Colombia, Angola, Marruecos, Bolivia y China, además de Euskal Herria Sus costumbres y su cultura son las protagonistas.

"Babel: cuentos del mundo, culturas del mundo" se podrá visitar en el Centro Cultural Aiete del 18 al 22 de noviembre y en el Centro Cultural Okendo del 25 al 29 de noviembre. Durante esas fechas, se celebrarán visitas guiadas dirigidas exclusivamente a los centros escolares. Aquellos grupos que acudan a las visitas guiadas podrán disfrutar además de un monólogo basado en algunos cuentos de esos países, con su música y sus tradiciones.

Estas visitas, dirigidas principalmente al alumnado de 2º ciclo de educación primaria, tendrán una duración de hora y media y se realizarán en horario de mañana, en dos turnos: a las 9.15 horas y a las 10.45 horas.

Por último, la exposición estará abierta al público en general, en el siguiente horario:

• Centro Cultural Aiete: del 19 al 22 de noviembre, de 16.00 horas a 20.30 horas.

• Centro Cultural Okendo: del 25 al 29 de noviembre, de 16.00 horas a 20.30 horas

Además, en cada uno de los Haurtxokos de la ciudad, se organizarán visitas guiadas para los usuarios/as de estos, en días y horarios concretos.



# ‘200’ BIDEOINSTALAZIO INTERAKTIBOA



## 1813tik zer bilakaera izan duen azaltzen da, donostiar belaunaldi berri batek kontatuta

Morgancrea estudioak sortuko du, abenduan estreinatuko da, eta Urgull mendiko Historiaren Etxean erakutsiko da behin betiko. Bigarren Mendeurrenaren oroitzapenaren 13. mugarria izango da.

Proiektuan hiriko zenbait ikastetxe, ikastola, eskola, institutu, prestakuntza-zentro eta unibertsitatetako 200 ikaslek parte hartu dute. Gazteak 10 eta 25 urte artekoak dira, eta 800 ikasle donostiarrek parte hartu duten casting batean aukeratu dira. Zentro bakoitzean, irakasleen laguntza izan dute casting hori egin dutenek, eta askotariko gazteak, tarte horretako adin guztietakoak eta abar bilatzen ahalegindu dira, dikzio- eta interpretazio-dohain onenak zituztenei lehentasuna emanez.

Azken batean, 200 urtean gertatutakoaren kontakizuna da, sinbolikoki 200 gaztek egina, eta gazte horiek hiri honen hurrengo fasea kudeatu beharko duen belaunaldikoak dira.

Bideoinstalazioa Donostiaren hedapen geografikoan eta bilakaera arkitektoniko eta sozialean barrena egindako bidaia didaktiko, zorrotz, hunkigarri eta atsegin bat da, eta, besteak beste, natura-ingurunea, tradizioak, gastronomia, arteak, industria eta kirola azalduko dira. Bideoinstalazioa hezkuntza-proiektu bat da, interaktiboa, ‘nahierara’ erabiltzekoa eta parte-hartzailea, eta gaur egun arte ikus-entzunezko batean hiriari buruz jasotako askotariko irudi-kopuru handiena biltzen du kontsulta-gune batean.

Planteamendu horren xedea da ahalik eta ikastetxe gehienek parte hartzea bideoinstalazioaren proiektu komunean, eta hiriaren historiari buruzko ezagutza sustatzea, 2013. urte amaieran gazte guztiek haren berri izan dezaten; horregatik, ezinbestekoa izaten ari da herritarrek parte hartzea.



Emaitza memorial bat izango da, eta haren bidez omenaldia egingo zaio pertsona asko eta askok historian zehar egindako ahaleginari, hondatuta zegoen hiri bat, Donostia, 2016ko Europako Kulturaren Hiriburu izendatzeraino eraldatzea lortu baitute. San Telmo Museoan estreinatuko da abenduan, eta, geroago, modu iraunkorrean erakutsiko da Urgull mendiko Historiaren Etxean, eboluzionatuz eta zabalduz joateko asmoarekin, 2016an jarraipena izango duen bide batean.



# HIP HIP URRI!, PLAN KULTURALAK FAMILIARTEAN

Hip Hip Urri! October Children ekimenaren lehen edizioaren emaitza bikaina izan da, zalantzarik gabe, eta gora egin du aisiako jarduera kulturalez familiartean gozatzeko apustua egin duten partaideen kopuruak. Zehazki, 58 jarduera egin dira 21 ikastetxetan, eta, horiei esker, familiarteko plan kulturalez gainezka egon da urria.

Orain, berriz, Europarekiko trukeen txanda izango da. Azaroak 30ean, larunbatean, eta abenduaren 1ean, igandean, Holanda, Berlin, Riga eta Donostiako October Children ekimenarekin lankidetzan ari diren 4 artista europar izango dira Donostian. 2016ko egoitzan (Easo kaleko suhiltzaileen egoitza ohia), Holandan egindako ikus-entzunezko instalazioa izango da Lur ikusezinak/ Tierras invisibles / Invisible Lands familientzeko tailerren kokalekua.

**AUKERA PAREGABEA, ARTISTEKIN SORMENA LANTZEKO**

Plazak mugatuak dira, eta partaidetza, doakoa. Interesdunek azaroaren 23ra arteko epea izango dute izena emateko; horretarako, telefonoz deitu behar dute Ikertzera (943 320461), 10:00etatik 13:00etara, edo izena emateko inprimakia bete, honako webgune honetan: www.hiphipurri.org














Un momento de un concierto anterior dirigido a los más pequeños de la casa.

# APRENDER CON LA MÚSICA

Para este curso 2013/2014, el Aula de Música de la Orquesta Sinfónica de Euskadi ha programado tres series de Conciertos para Escolares para las etapas educativas de Primaria, Secundaria e Infantil. La orquesta de cuerda y su refinado repertorio fue el protagonista del primero de los conciertos, dirigido al alumnado de Primaria, que tuvo lugar a finales del pasado mes de octubre. Para Secundaria, un gran concierto para piano y orquesta nos introducirá en el apasionado mundo del Romanticismo y, para los más pequeños, un espectáculo músico-teatral centrado en el periodo Barroco.

**Se trata de tres series de Conciertos para Escolares para las etapas educativas de Primaria, Secundaria e Infantil organizado por el Aula de Música de la Orquesta Sinfónica de Euskadi**

## ESKOLA KONTZERTUAK
## CONCIERTOS PARA ESCOLARES

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**
**E. Secundaria**
Ziklo guztiak - Todos los ciclos
2013ko azaroaren 27, 28, 29
27, 28 y 29 de noviembre 2013
10.30 h.
"Gerra eta pakea"
P.I. Tchaikovsky: Concierto para piano y orquesta nº 1 en Si bemol menor, opus 23
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Félix Ardanaz, pianoa
Iker Sánchez, zuzendaria

**Haur Hezkuntza - Educación Infantil**
Bigarren zikloa - Segundo ciclo
2014ko otsailaren 19, 20, 21
19, 20 y 21 de febrero 2014
10.00 y 11.15 h.
"Barrok...ino"
Orkestrako musikariak
Teatro Paraíso
Ikasleentzako tailerra: lunes 2 de diciembre, 12.30 h

# BREVES / LABURRAK

## ARTE ETA GIZA ESKUBIDEAK, HAUR ETA GAZTEEN 10. EKITALDIA

Donostiako Udalak, Giza Eskubideen atalaren bitartez, deitzen du, Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 10. Ekitaldian parte hartzera.

Aurtengo ekitaldi honek beste berrikuntza bat dakar, parte hartzeko adina zabaltzen da 18 urte arte, bakarka edo taldeko edozein modalitate hauetan adin hori gainditu arte parte har daitekeelarik. Gainera, epaimahai ofizialak irabazleak nortzuk




diren erabakiko du, eta herritarrek ere kategoria bakoitzeko lanik hoberenak aukeratu ahal izango dituzte Bakearen eta Giza Eskubideen web gunearen bidez.

**Kategoriak**

Parte-hartzailearen adinaren arabera, lau kategoria proposatzen dira eta bakoitzean lanak banaka edo taldeka aurkeztu daitezke.

· 6-8 urte.
· 9-12 urte.
· 13-15 urte.
. 16-18 urte.

**Epea**

Lanak aurkezteko epea, 2014ko urtarrilaren 31n bukatuko da, eguerdiko 14:00etan.

Lanak ekartzeko edo bidaltzeko helbidea:
Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea
Aiete Jauregia
Aiete pasealekua, 65
20009 Donostia

Sariak banatuko dira ekitaldi publiko batean, 2014ko maiatzaren 18an, Donostiako "Koldo Mitxelena" Eskolarteko XXV. Literatur Lehiaketarekin batera, Victoria Eugenia antzokian.

Lan guztiak ikusgai egongo dira Victoria Eugenia antzokiko erakusketa aretoan 2014ko apirilaren 4tik 11ra bitartean eta baita sari banaketaren egunean ere, herritar guztiek ezagut ditzaten.

Gainera, "Bazen behin" liburuxka argitaratuko da lan onenen eta sentiberatasun gehien dutenen hautespen batekin.

Jarduera honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazioaren sailaren laguntzak ditu.

## 2013/2014 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA BERRITUA AURKEZTU DU CRISTINA ENEAK





Uxua Arana Cristina Enea Fundazioko hezkuntza alorreko arduradunak nabarmendu du eskaintza kualitatiboki eraldatzea dela Cristina Enearen helburua: "Horretarako, eta aurreko urteetako Hezkuntza Eskaintzetako jarduerak testeatu ondoren, eta jasotako ekarpenak aztertu ondoren, tailerrak hobetu ditugu, bai eta Ikusi Makusi izeneko jarduera berri bat gehitu ere, animalien munduan eta naturan ikusmenak duen garrantziarekin erlazionatua".

Iragan ikasturtean, lehenengoz, Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean garaturiko jarduerentzako Hezkuntza Eskaintza diseinatzeaz gain, Ulia Interpretazio Zentrorako Hezkuntza Eskaintza ere jarri zuten martxan, Urgulleko Natur Txokoarekin batera. Horiek dira fundazioak egun kudeatzen dituen hiru udal-dotazioak.

Ulia Interpretazio Zentroak 2012ko uztailean ireki zituen ateak, eta Ulia mendiaren aberastasuna hobeto ezagutzeko leiho bilakatu da urte honetan. Horrela, Ulia Interpretazio Zentrotik Uliako sekretuak ezagutzeko gakoak eskaintzen dira, tailerrak eta bisita gidatuak bezalako jarduera didaktikoen bidez.

2013/2014ko Hezkuntza Eskaintza izango da ikasturte oso bat hartuko duen lehenengoa Ulian, eta horretarako jarduera berri batekin indartu da, baina. Jarduera berri hau, Lorez lore erleak ere izenekoa, Haur Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. Erletegi bat jarri diute Ulian, erleen bizimodua eta erlauntza baten funtzionamendua bertatik bertara ikusteko aukera eskainiz, eta erleek naturan duten garrantzia nabarmentzeko.

## HAURREN EGUN UNIBERTSALA- DÍA UNIVERSAL DE LA INFANCIA

Un año más celebramos el Día Universal de la Infancia y la aprobación de la Convención de los Derechos del Niño/a. La celebración se centrará en los diversos espacios municipales con una amplia programación para niños, niñas y jóvenes y, la ciudadanía en general. En las bibliotecas municipales, como es habitual se realizará la llamada "Hora del Cuento", pero esta vez teniendo como eje los derechos de la infancia.

Por otro lado, en los Gaztelekus bajo el título "Deseos y necesidades" se podrá disfrutar del juego de UNICEF que pretende establecer entre los jóvenes cuales son las necesidades básicas y cómo estas pueden llegar a considerarse derechos básicos. El mismo día 20 de noviembre, en los Gaztelekus de Aiete, Bidebieta, Egia, Gros e Intxaurrondo. En Amara además de esté día, el 19 de noviembre y en Martutene en 21 de noviembre. Asimismo, en todos los Haurtxokos de la ciudad se han organizado programas con diferentes actividades que se llevarán a cabo, del 16 al 23 de noviembre con la intención de sensibilizar y visibilizar los derechos de los niños y niñas de forma divertida y lúdica.

Además, la exposición itinerante "Babel: cuentos del mundo, culturas del mundo" se podrá visitar en el Centro Cultural Aiete del 18 al 22 de noviembre y en el Centro Cultural Okendo del 25 al 29 de noviembre. El mismo 20 de noviembre, a las 18.00 h. en el Centro Cultural Aiete tendrá lugar una visita guiada de la exposición.




## GAZTEENTZAKO GIDA DIDAKTIKOA

Hausbero 1813-2013 euskarazko izenez, eta Tras las llamas 1813-2013 gaztelaniaz, gazteentzako gida didaktiko bat plazaratu du Donostiako Udalak, Ereiten Kultur Zerbitzuekin batera, Donostia erre, suntsitu eta ondoren berreraikitzeko ebazpenaren Bigarren Mendeurrena dela eta.

Ikasle donostiarrek oraina eta gaur egungo Donostia ezagutu eta ulertu ahal izatea da gidaren helburua, baina, herritarrek aurreko belaunaldietan protagonizatutako bizipenak ezagututa. Hala, Frantziako Iraultza eta Gipuzkoan izandako eragina abiapuntu hartuta, 1813ko Donostiaren suntsiketari eta ondorengo berreraikuntzari erreparatzen dio bereziki.

Gida didaktikoa euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu da, 500na ale, eta hiriko ikastetxeetan banatuko da. 14 eta 15 urteko gazteei zuzendua dago, Bigarren Hezkuntzako ikasleei.

Banaka edo taldeka landu daiteke. Gaiak sei ataletan sailkatzen dira, testu eta irudien bitartez aurkeztuta. Unitate bakoitzeko, aktibitate bana proposatzen da, "ikasleek datuak bildu ez ezik,




hausnarketa egin eta hiriaren 200 urte honetako historiaz eta gatazkei eta haien ondorioei buruzko ezagutzak ere agerian jar ditzaten". Hala, "hiritar aktibo eta kritiko bilakatu ahal izango dira, eta gure gizartearen eta haren baitako eraldaketen oparotasun kulturala preziatzeko gai ere izango dira".

Gida ilustratzeko, antzinako mapak eta irudiak baliatu dira, asko eta asko San Telmo Museoaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Koldo Mitxelena Kulturunearen bildumetatik hartuak; haiekin batera, ilustrazio modernoak txertatu dira, bai eta QR kode bat ere.

# IKASLE NAHIZ GURASOEN NEURRI-NEURRIKO ESKAINTZA

## Baikarak abian jarri du 2013-2014 ikasturterako prestakuntza eskaintza zabala

Baikara dagoeneko lantzen ari da Gipuzkoako ikastetxe publikoetako guraso nahiz ikasleei begira 2013-2014 ikasturterako antolatutako tailerrak eta saioak.

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei dagokienez, honako tailer hauek egiten ari dira: 'Irudimena jostailu', 'Jolasean musikaz gozatzen dugu', 'Jolasean elkar ezagutzen dugu', 'Jolasean erronkei aurre egiten diegu', 'Jolasean elkar onartzen dugu', 'Jolasean erabakiak hartzen ditugu' eta 'Sare sozialetan jolasean'.

Tailer horien helburua da, besteak beste, bizikidetzarako funtsezko zenbait gai lantzea; banakako nahiz taldeko trebetasunak garatzen laguntzea; aniztasuna gizarte aberastasun modura bizitzeko baliabideak eskaintzea; ikasleen ahalmen kritikoa eta taldearena sustatzea, egunez eguneko zailtasunei aurre egiteko, eta gizarte sareen erabilera egokia sustatzea.

Baikarak gurasoei proposatutako prestakuntza saioen bidez, familiaren funtzionamenduaren oinarrizko gaiei buruzko gogoeta guneak sortu nahi dira, familian sorturiko egoerak kudeatzeko baliabideak eta gaitasunak barneratzera bideratutako metodologia baten bidez. Guraso elkarteei eskaintza ahalik eta malguena egiteko, Baikarak guraso elkarteen esku uzten du saioen antolaketa, aldez aurretik gaiak, maiztasuna, ordutegia eta saioen kopurua soilik zehaztuta.

Gurasoentzako saioen programa oso oparoa da, askotariko gaiek osatua, baina haurtzarotik nerabezarora bitarteko haurren gurasoentzat izaten dira bereziki interesgarriak. Hiru saio besterik ez dira gurasoei eta haien prestakuntzari eskainiak, honako hauek, hain zuzen ere: 'Partaidetzan oinarrituriko IGEen kudeaketa'; 'IGEentzako komunikazio estrategiak' eta 'Eskola Kontseiluetarako prestakuntza'.

Programako gainerako proposamenak, berriz, hauek dira: 'Nola komunikatu, afektuz hezteko'; 'Komunikazioa, asertibitatea eta gatazken konponketa, familian'; 'Ahaleginean eta erantzukizunean oinarrituriko hezkuntza'; 'Zergatik sortzen dira zeloak eta nola eragiten dute gure bizitzan?'; 'Zergatik esaten dituzte haurrek gezurrak?'; 'Haurren herabetasuna'; 'Nola errieta egin seme-alabei eraginkortasunez'; 'Jolasak haurrentzat duen garrantzia'; 'Nola sustatu enpatia'; 'Nola aurrea hartu kidekoen arteko tratu txarrei'; '0 eta 12 urte bitarteko haurren garapen psikologikoa'; 'Nola transmititu ohitura osasungarriak'; 'Mugak, sariak eta zigorrak'; 'Gizarte trebetasunetan trebatzea'; 'Nola erlazionatu nerabeekin familiartean'; 'Nerabezaroan jarrera positiboak sustatzeko estrategiak'; 'Nola erantzun seme-alabek egiten dizkiguten galderei'; 'Jolasean ongi sentitzen gara'; 'Kulturen arteko bizikidetza'; 'Afektibitatearen eta sexualitatearen hezkuntza', 'Facebook, tuenti... zer jakin behar dugu gizarte sareei buruz?'; 'Ez gaitzaten sareetan harrapatu'; 'Eskola kirola, hezkuntzarako tresna'; 'Etxeko lanak ere guztion ardura dira' eta 'Oihukatu gabe heztea'.









Kurtzebarriko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako ikasleek beren etxeetan hartu dituzte, zazpi egunez, Holandako Cujik herriko Merletcollege ikastetxeko 39 ikasle eta 3 irakasle. Argazkietan, batzuk eta besteak elkarrekin.

# IKASLE TRUKEA, KURTZEBARRI IKASTETXEKO ETA HOLANDAKO MERLETCOLLEGEKO IKASLEEN ARTEAN

**Zortzigarren urtez antolatu dute ikasleen arteko topaketa, kultura trukea bideratzeko eta ingelesa praktikatzeko helburu nagusiarekin**

Kurtzebarriko DBH 4ko ikasleek beren etxeetan hartu dituzte, zazpi egunez, Holandako Cujik herriko (Brabante iparraldea) Merletcollege ikastetxeko 39 ikasle eta 3 irakasle. Eta orotariko jarduerek osatutako egitarau batean parte hartu dute ikasle eta irakasle gonbidatu horiekin. Trukea antolatzeko diru laguntza jasotzen zuen 2011. urtera arte, baina azken bi urteetan gurasoei esker ateratzen ari da trukea aurrera; gurasoek dirua ateratzeko egiten duten lanari esker, hain zuzen, dela elastikoak saltzen, dela jaietan txosna jarriz...

Neska-mutilak ikasle holandarrekin lanean aritu dira ekimen honen baitan, eta blog bat landu dute elkarrekin, jardueraren alderdi nagusien berri jasotzeko.

Trukearen bidez Kurtzebarri BHIren asmoa da «ikasleen curriculuma zabaltzea, Europako errealitatea kontuan hartuta, beste komunitate batzuen ezagutza sakontzeko eta ikastetxean bertan nahiz beste herrialde batzuetako ikastetxeekin talde lana sustatzeko xede orokorrekin».

Leintz bailarako udalerrietako familietan igaro duten astean, urtero bezala, Euskadi ezagutzeko txangoak egiteko aukera izan dute bisitariek, Donostiara eta Bilbora, besteak beste, eta euskal kulturarekin eta herri kirolekin loturiko jardueretan parte hartu dute. Esan bezala, truke kulturala sustatzeko eta ingelesa praktikatzeko bitarteko gisa harturik jarduera horiek. Hain zuzen ere, truke hauek europar dimentsioa nabarmendu nahi dute, eta beste esperientzia eta kultura batzuk ezagutzeko aukera paregabe eskaintzen diete nerabeei eta irakasleei.

# INSTALACIÓN DEL AULA DE PSICOMOTRICIDAD EN AMAÑA DE EIBAR

**Amaña ha sido el último centro escolar de Eibar en abrir este curso este tipo de equipamientos para el desarrollo psicomotor**



Los niños y niñas se lo pasan en grande en el aula de psicomotricidad.

El centro escolar de Amaña cuenta con una nueva aula de psicomotricidad que viene siendo empleada, desde inicio del curso, por su alumnado, con lo que todos los centros públicos de Eibar consiguen tener un equipamiento de este tipo. Amaña era el único colegio que no disponía de esta aula especial.

La entrada en funcionamiento de esta aula ha sido posible después de llevarse a cabo la anulación de uno de los frontones en los que jugaban los alumnos y alumnas, para habilitar en este lugar un espacio diáfano que la dirección del centro educativo puede utilizar como aula de psicomotricidad, un servicio cada vez más utilizado en los actuales métodos educativos.

La psicomotricidad trata de impulsar la relación que existe entre la mente y el movimiento. Y en este sentido, el desarrollo psicomotor es muy importante en la educación, pues a través del mismo el niño se redescubre, conociendo su cuerpo, conoce los objetos y demás personas y los elementos del entorno que le rodea. Y, particularmente, descubre sus posibilidades de acción y su capacidad de hacer cosas. «Todos los centros deben disponer de un aula de psicomotricidad, pero nosotros carecíamos de ello. Ahora, ya contamos con este equipamiento que podrá ser utilizado por nuestros 160 alumnos y alumnas. Además de para el alumnado de preescolar también podrá ser utilizado por otros alumnos de edades superiores, para ejercicios de gimnasia, danza y ensayos de baile», cuenta Yosune Arratibel.

El aula dispone de una serie de materiales fijos como espalderas, bancos, pizarras, espejos, cuerdas, sacos, cartones, aros, pelotas de goma, papel, telas, túneles, cojines de diferentes tamaños, y todo aquello que pueda favorecer el juego simbólico.

# UGARO Y MENDARO IKASTETXEA ABREN LA CAMPAÑA ESCOLAR DEL TOPIC







Este mes de noviembre alumnado de Ugaro de Legorreta y de Mendaro ikastetxea fueron los encargados de abrir la campaña escolar del Centro Internacional del Títere de Tolosa, Topic.

La Campaña escolar consiste en ver una representación de títeres, asistir a un taller de construcción de marionetas y conocer el Museo del Centro, entre otras actividades. Está dirigida al alumnado, a partir de los 4 años, fundamentalmente de educación primaria, que quiera conocer un poco más el Topic y el tesoro de los títeres.

La actividad consta de la realización de un sencillo trabajo lúdico en el propio centro escolar con anterioridad; una jornada en el Topic, desde las 10.00 hasta las 15.00 horas; ver una representación y charlar con los artistas; hacer un taller de construcción de títeres y realizar en el centro otro trabajo lúdico como cierre de programa.

En los talleres aprenden a construir un títere, pero no de cualquier manera. "No hacemos nada de corte y pega, para nosotros es importante que cada niño y niña pueda construir un muñeco diferente, jugamos con la creatividad y les damos un espacio de desarrollo. Hay unas técnicas básicas que les enseñamos a todos por igual, pero queremos que cada uno haga un títere diferente. Que no todos se vayan con la misma marioneta", explica Karmele Cruz, responsable del área pedagógica del Topic.

Este año participan nueve compañías de títeres: Toni Rumbau (Cataluña), Roberto White (Argentina), Taun Taun (Euskadi), La Canica (Madrid), Mutis (Castilla-León), Onírica Mecánica (Murcia), Buho Teatro (Andalucía), Txotxongillo (Euskadi) y Bihar (Euskadi).

En diciembre acudirán a la Campaña escolar los centros donostiarras de Amasorrain e Intxaurrondo Hegoa, Ondarreta de Andoain, Itsasondo Herri eskola y Juan XXIII de Litzartza y para el año que viene está programada la participación de Ama Berri y Zuhaizti de Donostia, Pello Errota de Asteasu, Erniobea de Billabona, Alkartasuna de Beasain, Lardizabal de Aia, Samaniego de Tolosa y Koldo Mitxelena de Errenteria.

# NUEVO CENTRO TOKI ALAI EN IRUN PARA NIÑOS DE DOS AÑOS

## Las 69 plazas que se ofertaban en el colegio se cubrieron rápidamente

Situado en Palmera Montero el nuevo centro de Toki Alai dirigido a niños y niñas de 2 años abrió sus puertas el pasado mes de septiembre. Sesenta y nueve niños y niñas fueron los encargados de estrenar el centro y sus modernas a la vez que "coquetas" instalaciones. En su curso inaugural, la escuela ha cubierto todas las plazas que ofertaba.

El centro entró en funcionamiento justo para el inicio del curso. Su directora, Maite Mindegia, aseguraba que todo el equipo docente «estamos encantados. El entorno, el interior... Arquitectónicamente es maravilloso. Y además, es luminoso, alegre, atractivo para los txikis...».

Primeramente se hizo una jornada de puertas abiertas, a la que acudieron los aitas, amas y los niños y niñas con el objetivo de conocer la escuela para ya, la siguiente semana, empezar con el período de adaptación.

El equipo docente afirmaba en su momento que también era una ventaja muy grande el hecho de que los más pequeños estuvieran solos, separados de los de 3, 4 o 5 años porque "su mundo no tiene nada que ver, son unas edades en las que la diferencia de un año a otro es muy grande».


Toki Alai abrió un nuevo centro durante el mes de septiembre en Palmera Montero.

# UN MODERNO CUBRIMIENTO DE PATIO PARA EL COLEGIO SAN ANDRÉS DE ARRASATE

## La cubierta consta de ocho paneles de los cuales seis se pueden abrir en función de la climatología

El colegio San Andrés cuenta actualmente con un patio cubierto, una de las peticiones en las que las familias y la dirección del centro más han insistido para la apertura del actual curso. Este proyecto, incluido en los presupuestos municipales de este año, ha tenido como objetivo proporcionar un espacio cubierto al actual patio, que tiene unas dimensiones aproximadas de ocho metros de ancho por treinta de largo.

Esta petición de reforma del patio ha sido una constante en los últimos años, teniendo en cuenta que el edificio escolar, ubicado en el centro de Eibar, es reducido y cuenta con un importante número de alumnos y alumnas.

El espacio veía limitado su uso con las inclemencias del tiempo, de forma que la cubierta posibilita el uso del patio en los días de lluvia y sus características permiten el paso de la luz natural. Además, la cubierta consta de 8 paneles, de los cuales 2 son fijos y los otros 6 se pueden abrir y cerrar en función de la climatología.

En otro orden de cosas, el colegio San Andrés de Eibar celebrará este curso escolar el cincuentenario de la fundación del centro. Por este motivo, desde la dirección del centro se ha solicitado a todos aquellos eibarreses que han tenido alguna relación con el colegio, a ponerse en contacto vía correo electrónico con el mail sanandres50urte@gmail.com o a través de la cuenta twitter @sanandreseskola, etiqueta #sanandreseskola50 para participar, de alguna manera, en la confección del programa



Vista general y con más detalle del nuevo sistema de cubrimiento del patio.

# OLABERRIKO ESKOLA HANDITZEN ARI DA

## 47 ikasleren topaleku da, 32 familiak haurrak herrian hazi eta hezteko hautua hartu baitute aurten

Olaberriko eskola, eskola txikia da. Eta eskola txikia izatearen abantailak baliatzen ditu eguneroko lanean. Txikitasun horretan, ordea, eskola handitzen ari da.

Matrikula kopuruak gora egin du azken urteetan, eta 2013-2014 ikasturte honetan, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa ireki berri du bosgarren mailako ikasle batekin. Guztira, 47 ikasleren topaleku da Olaberriko eskola.

Ikasle hauek lau gelatan banatuta daude: 2-3 urteko gela, 4-5 urteko gela, LH 1-2 mailak eta LH 3-4-5 mailak.Guztira, lau gela, esan bezala.

32 familiren hautua da eskola. Herrian hazi eta hezteko aukera. Horren eragile izan nahi du eskolak, "Eskola Txikiak Herri Biziak" lelopean aspektu ezberdinetan hazten jarraituz.






Kartel lehiaketa antolatu dute Usandizaga-Peñaflorida Institutuan eta lerro hauen gainean ikus daitezkeenak bezalako kartelak aurkeztu dituzte ikasleek.

# USANDIZAGA-PEÑAFLORIDA INSTITUTUAREN KARTEL LEHIAKETA

## Lanak aurkezteko epea abenduaren 10ean amaituko da

Usandizaga-Peñaflorida Institutuko Sustapen guraso elkarteak kartel lehiaketa antolatu du ikasleentzat. Bi modalitate izango ditu lehiaketak: komiki lehiaketarako kartelarena, eta literatura lehiaketarako kartelaren. Kartel lehiaketako lan irabazleak erabiliko dira guraso elkarteak antolatzen dituen komiki eta literatura lehiaketetako publizitatean.

Lanek DIN A4 neurria izan behar dute, eta 2013ko abenduaren 10a baino lehen aurkeztu behar dira zuzendaritzan. Kategoria bakoitzean 80 €-ko lehen saria eta 60 €-ko bigarren saria banatuko dituzte. Informazio gehiago:

ampa.sustapen.ge@gmail.com

IGEak antolatutako komiki eta literatura lehiaketei dagokienez, berriz, gogoan izan komiki lehiaketa DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleentzat dela, eta literaturakoa (euskaraz eta gaztelaniaz), ikasle ororentzat.

# ESKOLA PUBLIKOA, **LOMCEREN ETA MURRIZKETAREN KONTRA KALEAN**













1. Urgain (Oñati).
2. Erniobea (Billabona).
3. Zuhaitzi (Donostia).
4. Ipintza (Bergara).

info+ www.ehige.org/lomce

# LOMCEri EZ! ¡NO A LA LOMCE!

GUK GURE eskola
• euskal eskola publikoa •

## LOMCEri EZ! GUK GURE ESKOLA. EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

*LOMCE, hezkuntza-lege berria, izugarrizko atzera pausua da gure seme-alabentzat. Gure hezkuntza defendatzea, lortu dugun guztia mantendu eta hobetzea da gure helburua. Horretarako, zuen laguntza behar dugu. Zure ikastetxe eta Guraso Elkarteen ekimenetara batu! Hona hemen arrazoi batzuk:*

EZETZ esaten diogu **parte har ez dezakegun hezkuntza-sistemari.** Lege berriak murriztu egiten du gure seme-alaben heziketari eragiten dioten erabakietan parte hartzeko dugun eskubidea, kontsultarako organo bihurtuz Eskola Kontseiluak.
**Hezkuntza-sistema demokratiko baten partaide izan** nahi dugu.

EZETZ esaten diogu **bereizketari.** LOMCEk ikasleak banatu nahi ditu 14 urtetik, ahalmenen arabera. Ez da egia banaketa goiztiarrak emaitza hobeak lortzen dituenik.
**Ikasle guztiei 16 urtera arte ezagutza komunak bermatuko dizkien hezkuntza-sistema** nahi dugu.

EZETZ esaten diogu **euskara eta gure curriculuma gutxiesteari.** Lege berriak hiru mailatan banatzen ditu irakasgaiak eta hirugarren mailan uzten du euskara. Oinarrizko irakasgaietan (enborrekoak) Hezkuntza Ministerioak erabakiko du edukien %100, baita ebaluatzeko irizpideak ere, euskal administrazioari parte hartzeko aukerarik utzi gabe.
**Ikasle euskaldun eleanitzak** nahi ditugu.

EZETZ esaten diegu **Estatuko azterketei,** errepikapenak sustatzen dituztelako eta zailtasunak ipini DBH eta Batxilergoko tituluak lortzeko, ez delako izango nahiko ikasturtea gainditzea. Europan ez dago horrelakorik.
Ebaluaketa jarraituak kontuan hartuko dituen legea nahi dugu.

EZETZ esaten diogu **eskola-ordutegian erlijioa irakasteari,** ikasleak banatzen direlako sinesmenen arabera. Lege berriak ordu gehiago eskaintzen dizkio erlijioari tutoretzari baino.
**Guztiontzako eskola** nahi dugu. Euskadiko Eskola Kontseilua erlijioak derrigorrezko curriculumean sartzearen kontra agertu da.

EZETZ esaten diogu **Musika, Plastika, Hiritartasunerako Hezkuntza edo Teknologia bezalako oinarrizko irakasgaien desagertzeari.**
**Modu integralean heziko duen eskola** nahi dugu **gure seme-alabentzat.**

## ¡NO A LA LOMCE! GUK GURE ESKOLA. EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

*La LOMCE, nueva ley de educación, es una gran marcha atrás para nuestras hijas e hijos. Defender nuestra educación, mantener todo lo que hemos conseguido y mejorarlo es nuestro objetivo. El sistema educativo vasco se sitúa entre los más desarrollados de Europa y así debe continuar. Para ello, necesitamos vuestra ayuda. Apoya las iniciativas de tu centro escolar y tu AMPA, porque...*

Decimos NO **a un sistema educativo donde no podemos participar. La nueva ley recorta nuestro derecho a participar,** ya que convierte los Consejos Escolares en órganos de consulta.
Queremos **ser copartícipes de un sistema educativo democrático.**

Decimos NO **a la segregación. La ley separa al alumnado,** según sus capacidades, a los 14 años. Separar de forma temprana no mejora sus resultados.
Queremos **un sistema educativo igualitario para todo el alumnado hasta los 16 años.**

Decimos NO **a menospreciar el euskera y nuestro currículum.** La ley divide las asignaturas en tres niveles y deja el euskera en el último nivel. En las asignaturas principales el 100% de los contenidos los pone el Estado, establece los criterios de evaluación, etc, sin ningún tipo de participación de la Administración vasca.
Queremos **un alumnado euskaldun plurilingüe.**

Decimos NO **a exámenes estatales, fomentan las repeticiones y ponen trabas para lograr el título de ESO y Bachillerato,** ya que no será suficiente con superar cada curso. En Europa no existe algo parecido.
Queremos **una ley que tenga en cuenta las evaluaciones continuas.**

Decimos NO **a la enseñanza de la religión en el horario escolar,** porque fomenta la separación del alumnado. La nueva ley da más peso horario a la religión que a las tutorías.
Queremos **una escuela para todas y todos.** El Consejo Escolar de Euskadi ya se ha manifestado en contra de la inclusión de las religiones dentro del currículo obligatorio.

Decimos NO **a la desaparición de asignaturas básicas como Música, Plástica, Educación para la Ciudadanía o Tecnología.**
Queremos **una escuela que eduque de forma integral en valores compartidos por toda la sociedad.**

ehige

info+ 944169360 Ronda 27, 1ezk, 48005 Bilbao


SUPER BAT KONTUA
HAURREI AURREZTEN IRAKASTEN DIEN KONTUA
- 0 eta 16 urte bitartekoentzat.
- Erabateko malgutasunez eta komisiorik gabe.
- Aurrezkiek puntuak ematen dituzte, Super Bat Katalogoko* opariez trukatzeko.
Bada beste modu bat.
SUPER BAT
* Super Bat katalogoko gaiak puntuez trukatzeak zerga du, kapital higigarriko errendimendutzat hartzen baitira.
SUPER BAT KONTUA
LABORAL kutxa